

TOLOSA ▶

Bigarren itzulira, pozarren

«Oso ona» izan da lehena urdinentzat ▶ 3



ÍNAKI ARRIOLA ▶ APAIZ ESKOLAPIOIA TXILEN

«Herri maputxeak antza du Euskal Herriarekin; mendian dago»

ANTZA ▶ Argentina eta Txile artean dago herri maputxea; hemen lehen bezala, ikazkinak badira

LAGUNTZA ▶ Tolosaldeko enpresaburu batzuk hasi ziren makinaria erabilia bidaltzen basorako ▶ 2



Senitartekoengana etorri da Arriola Txiletik; laguntza ere bilatu nahi du, bide batez. JOXEMI SAIZAR

ÍNIGO TERRADILLOS



Apirilaren 3an lehiatuko da Otaño Mindegiarekin

IBARRA ▶ Joan den ostiralean bota zion ibartarrak desafioa, eta Labaiengoak onartu egin zuen; Donezteben izango da ziurrenik ▶ 6

TOLOSALDEA ▶

Lasa eta Eizagirre ongi, zaldi lasterketan

Lehen sei postuetan sartzea lortu dute ▶ 5

LEITZA ▶

Euskal Herriko historia azaldu du Urzainkik herritarren aurrean

Nafarroaren, Euskal Herriaren herri izaera frogatu du idatzi eta irudiekin ▶ 7



JAIONE ASTIBIA

ZIZURKIL ▶

Laguntza emango die Udalak ekimenei

Ordenantzak eskura daude udaletxean ▶ 4

IÑAKI ARRIOLA ▶ APAIZ ESKOLAPIOA TXILEN

«Ez gara ez martiriak ez heroiak»

Hainbat tolosarren laguntzaz, proiektu integral bat ari da burutzen Txileko maputxeekin: eskola, aroztegia, emakumeen lana, etxebizitza... Egur lehorgailua lortzea da hurrengo erronka



JOXEMI SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Hamabi urterekin seminarista joan zen. Lizarran, Orendainen, Iratxen eta Salamancan egin zituen ikasketak. Teologia eta Filosofia lizentziaturak egin zituen. Apaiz egin eta 17 urtetan Gasteizko Eskolapioetan arituz, zuzendari gisa. Hamar urte daramatza Txileko hegoaldean, behartsuenekin, Bilboko eta Iruñeko bi eskolapioekin batera. Egun batzuk ari da pasatzen orain Tolosan, familiarekin eta proiektuentzat laguntzak bilatzen.

Zer egiten duzu Txilen? Nolaz joan zinen hara?

Bizi. Ez gara ez martiriak, ez heroiak. Ondo bizi gara, hemen baino pozgarriagoa da han bizitzea. Ez gara masokistak. Hemengo gizartea oso gogorra da, lehiakortasun handia dago, estresagarria da. Han beste erritmo batean bizi gara, lasaia, maitasun handiagoa dago. Arazo handiak dituzte, baina gizatasuna larruazalean dago. Hemen pertsona bat ezagutzeko harraskatu egin behar da edo koadrilan, elkarte batean edo mikroklima batean sartu. Han errazagoa da.

Zein da zure lana?

Lanak asetasun handia ematen du han. Haur abandonatuak etxe bat daukagu alde batetik. Sei hilabetetatik sei urtera arteko haurrak dira. 30 dira, muga jartzen dugulako, neurri gizatiarra mantentzeagatik.

Zenbat biztanle ditu Curarehuk?

Herrian bertan 1.800-1.900 inguru, baina indigena gehienak mendialdean bizi dira, Andean. Maputxeari altuerak energia positiboa ematen die eta lautadak energia negatiboa. Guztira 5.000 biztanle inguru dira. Tribuetan bizi dira elkartuta, familiak. Erdigunetik 65-70 kilometrotara bizi dira asko, mendiko bideetatik joanda.

Ikastetxea ere baduzue.

Lehen Hezkuntza eta Lanbide Hezkuntza hartzen du, irakaskuntza osoa. 700 neska-mutil inguru ditu eta horietako 150 bertan bizi dira astelehenetik ostiralera.

Eta zein lan irteera dute?

Horretarako aroztegi bat jarri dugu. Lurralde hartan baso handia dago. Guztira hogeitabat langile ditu udan eta neguan hamar. Gainera, eskolako ikasleek praktikak egiten dituzte

aroztegian. Kooperatiba bihurtzea nahi dugu orain, indigenei irtenbide bat emateko.

Eta emakumeekin?

Emakumeak elkartzeko proiektu bat dugu martxan: ardiak, erleak, ehungintza, landaretza, artilea... lantzen dute.

Tolosatik laguntza jaso duzue.

Duela sei urte Gipuzkoako enpresaburu talde bat hasi zen laguntza ematen, tartean Tolosaldeko batzuk. Makinaria erabilia bidali ziguten eta harrezkero harremana mantendu dugu.

Zaintzen al duzue basoa?

Basoa ez kaltetzea eskatzen diegu; egurra atera, baina zainduz. Botatzeko baimenak eskatzen ditugu. Inguru hartan ez dira sartu multinazionalak; inguruan bai, dena txikituz. Espezie babestu batzuekin astakeria eta tranpa handiak egin dituzte. Hemen ere txikia nintzenezan baso gehiago zegoen eta orain desagertu egin dira; dena pinua da. Herri maputxeak antza dauka Euskal Herriarekin; Argentina eta Txile artean dago, mendian, bien artean. Ikazkinak ere badira, hemen ziren bezala.

Beste laguntzarik jasotzen al duzue?

Eusko Jaurlaritzak eta Gasteizko Udalak lagundutako garapen proiektua ari gara martxan jartzen. Setem GKEaren bidez ari gara egiten. Boluntario asko joaten dira uda baterako edo urte pare baterako. Eskoriatzako Magisteritza Eskolako ikasle batzuk ere joaten dira praktikak egitera. Kutsatu egiten dira, gainera; ilusioa hartzen dute. Fase polita pasatzen dute han eta kostatzen zaie berriro hemen gizarteratzea. Han beste modu batera bizi dira. Kontrastea gero eta handiagoa da bi lurraldeen artean.

Zein da egoera?

Argentinara joandako asko itzultzen ari dira Txilera krisiarengatik. Ezer gabe itzultzen dira, behar handia dute. Horren aurrean proiektu integrala ari gara bultzatzen: eskola, aroztegia, emakumeak, etxebizitza... Etxe prefabrikatuak egiten ditugu, iaz 15 egin genituen, oso duinak; hemengo milioi bat pezetarekin egiten ditugu. Baimenik ez da behar, azken finean, arkitekto, ingeniari, saltzaile lana... dena guk egiten dugu eta.



EZAGUPENA

«Hemen pertsona bat ezagutzeko harraskatu egin behar da; Txilen, behartsuenekin, errazagoa da»

LAGUNTZA

«Tolosaldeko batzuk makinaria erabilia bidali ziguten duela sei urte eta harremana mantendu dugu»

Egur lehorgailua

Oraintxe esku artean Curarehuk (Txile) duten proiektua —eta Arriolaren bisita honen helburuetako bat— egur lehorgailua lortzea da. «Hango egurrak oso gogorak dira, haritzaren antzekoak, baina gogorragoak: coihue, huaye, yenque... Hunka urte dituzte», dio Arriolak. Hemengo enpresa eta pertsona batzuk dirua ari dira biltzen hara egur lehorgailu bat bidaltzeko. Tolosako BSCH bankentxean kontu korronte bat ireki dute. Martxoaren bukaera aldera bidali nahi dute kontainerretan. Hilabeteko bidaia da.

Egurra lehortuz gero bere balioa 8 edo 9 aldiz biderkatuko litzateke. «Indigenek basoa dute, egurra, eta herrian kooperatiba dago. Trukeak funtzionatzen du, egurra eman eta zerratu edo etxea ekipatzen diete indigenei. Orain pulgadako 1.200 peso ordaintzen badute, egur lehorrak izanez gero 6.000 edo 8.000 peso lortuko litzateke. Indigenak lehorgailua ordaindu eta diru gehiago irabaziko luke», azaltzen du apaiz eskolapioak. ◀

ZIZURKIL ▶ UDALA

Eskuragarri dute diru laguntzen ordenantza interesatuek Udalean

Astialdia, kirola, kultura, hezkuntza, gaztetxoak eta euskara gaien inguruko ekintza interesgarriak finantzatu dituzte

IMANOL GARCIA

Astaldiaren, kirolaren, kulturen, hezkuntzaren, gaztetxoaren eta euskararen inguruko ekintza interesgarriak finantzatzeko diru laguntzak arautzen dituen ordenantza eskuragarri dute elkarte, talde eta norbanakoek. Eskabideak interesa dutenen esku Zizurkilgo Udalean eta Aurrera udal bulegoetan egongo dira eta eredu ofizialaren arabera bete ostean, behar bezala erregistratu dira. Urtean zehar egin asmo diren ohiko ekintzentzat diru laguntzak jasotzeko eskaerak aurkezteko epea otsailaren 28an amaitzen da. Ekintza puntualak egiteko eskaerak, gutxienez ekintza burutu baino hilabete bat lehenago aurkeztuko dira.

Diru laguntza horiek ondorengo arauel jarraituz emango dira: borondatezko eta behin-behineko izaera izango dute, ordenantzan xedatzen dena izan ezik; ez dira prezendentzat hartu ahal izango; ez da diru laguntzaren igoera edo berrikusketa exijitu ahal izango eta baliorik gabekoak izango dira inongo araupideei jarraitu gabe hartutako diru laguntza-akordioak.

Diru laguntzak pertsona fisikoek, juridikoek (izaera publiko edo pribatuko elkarte edo erakundeek) eta Zizurkilgo Udalak sortu duen erregistro-

an inskribatuta dauden elkarte edo taldeek eskatu ahal izango dituzte, betiere dirua irabaztea helburutzat ez badute.

Beharrezko dokumentazioa

Agiriak erantsi beharko zaizkie diru laguntza eskaerei: elkarte, erakunde publiko edo pribatuaren izenean egiten duen pertsona fisikoaren NAREN fotokopia. Bestalde, Udalak egingo duen herriko elkarten erregistroan inskribatua dagoela eguneratutako ziurtagiria. Aipatutako ziurtagiria ez da beharrezkoa izango baldin eta urte horretan beste diru laguntza jasotzeko ekarria izan bada. Urtean zehar egiten diren ekintzen memoria edo programa, eta behar izanez gero, diru laguntza eskatzen denerako ekintza puntualarena, hala nola, kontzeptuen arabera, diru sarrerak eta gastuak banaturik. Beste erakunde edo instituzioei gauza bera egiteko diru laguntza eskatu bazaie adierazi egingo da.

Aurkeztutako eskaerari ez bazaie erantzen eskaturiko dokumentazioa osotasunean edo zati batean, hamar eguneko epea emango zaio interesatuari dokumentazioa osatzeko eta epe horretan izapide hori bete ezean, eskaerari uko egin zaio la ulertuko da, Udalak aurretik ebazpena emango duelarik.

Eskaeraren tramitazioa

onartzeak ez du esan nahi Zizurkilgo Udalak, proposatutako ekintzaren edukina eta helburuak ezagutzeko bidezkoak deritzaizkion agiriak eskatzeko aukerarik ez duela.

Irizpideak

Diru laguntzak emateko irizpideak ondorengo hauek dira: ekintzaren xedea, gizarteko eragina kontutan hartuz; eskaera egiten duen elkarte edo erakundeak dituen bazkide eta laguntzaileen kopurua; jardueran beste erakunde edo elkarten partaidetza.

Behin diru laguntza eman ostean, hasieran % 75a emango da. Gainontzeko diru kopurua, dagokion departamentuaren aurrean ekintzaren memoria aurkeztu ondoren emango da. Memoria horretan, ekintza nola burutu izan den adieraziko da, horretarako nahitaez, egindako jakinarazpen, kartel, egitarau... erantsi beharko direlarik. Gainera gastu eta diru sarreraren balantze zehaztua aurkeztu beharko da, bidezko fakturak barne direla.

Diruz lagundutako jarduerak edozein komunikabideetan argitaratu edo informatzen denean, Zizurkilgo Udala babesle delako adieraziko da, ahal denean, herriko armarriri jarraituz. Aipaturiko informazioa eta publikizitatea euskaraz edo elebitan argitaratu edo kaleratuko da.

ADUNA ▶ GIZARTEA

Uztartzaren aro berriak hasiera ona izan du

Jende ugari bildu zen bai ostiraleko inaugurazioan bai asteburuan jatetxean



Pasa den ostiralean egindako inaugurazioaren une bat. I. GARCIA

I. GARCIA

Uztartza aterpetxe-jatetxea ostiralean inauguratu zuten arduradun berriek, Pili Kortajarenak eta Asier Aizpuruak. Jende andana joan zen bertara eta bi sukaldariek prestatutako jaki goxoak dastatu ahal izan zituzten. Herriko festak ziruditelako izan zen tabernan ezin kabitu egon ziren herritarren arteko komentarioa.

Bestalde, pasa den asteburuan ireki zuten jatetxea eta jende asko izan dute bertan.

«Oso gustura gaude izan dugun hasierarekin», azaldu dio Hitzari Pili Kortajarenak. «Oso mugitua izan da lehenengo asteburu hau».

Berritasunekin eta guzti dator Uztartzaren aro berria. Izan ere, menu berezia izeneko aukera jarri dute asteburuetan. «Karta garestiegi iruditzen zaionak 18 euro gehi ezin kabitu egon ziren herritarren arteko komentarioa.

VILLABONA ▶ HEZKUNTZA

Agresibitatea mintzagai guraso eskolan

Villabonako Fleming ikastetxeko guraso eskolaren aurtengo arratsaldeko eskaintza zenbait gai monografikoetan oinarrituko da. Gai hauetako bakoitza bi saiotan landuko da. Hurrengo gaia Agresibitatea umea eta familiarengan izango da eta hizlari ariko dena Maribel San Sebastian psikologoa izango da. Ostegun honetan, hilak 20, eta otsailaren 2an (asteazkena) izango dira hitzorduak. Arroako zentroan egingo dira saioak, 18:00etatik 19:30era, eta bertara joateko ez da beharrezkoa aurretik izena ematea. Antolatzaileek azaldu dutenez, haurtzaindegi zerbitzua izango da. Bestalde, Fleming-eko guraso eskolatik gogorazari nahi dute eguerdiko taldea, zortzi saiotan egituratutako guraso eskola, martxan dagoela. Orduetgia 14:30etik 16:00etara da. Hurrengo saioa etzi izango da Arroako zentroan. Guraso guztiak gonbidatuta daude saio hauetara joatera.

IBARRA ▶

Garagardo festa antolatzeko bilera Kultur Etxean

Garagardo festa antolatzeko herriko taldeei deialdia luzatzen zaie bilera egiteko. Bilerak gaur egingo da Ibarrako Benito Izagirre Kultur Etxean 19:00etatik aurrera.

IBARRA ▶

Ipuin kontaketa saioa bihar arratsaldean

Ipuin kontaketa saioa egingo dute bihar Benito Izagirre Kultur Etxean, arratsaldean, 17:30ean. Saioa lau eta zortzi urte bitarteko haurrentzat izango da.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Irrua. Ebebizitza eraiki berria. Egongela, sukaldea, bi logela eta bainugela. Terraza eta garajearekin. Ebesagasti. 943696856.

Ibarra. 85 m². Egongela, sukaldea, hiru logela eta bainugela. Kanpoaldera.

Trastelekuarekin. Bizitzera sartzeko. 34.500.000 pezeta (negoziagarriak). Inmo Ebesagasti. 943 696856.

Alkiza. Txaleta lursailarekin. Kapriboz. Informazio pertsonala. Ebesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. 85 m²-ko ebebizitza salgai.

Egongela, sukaldea, hiru logela eta bainugela. Kanpoaldera. 32.000.000 pezeta. Inmo Ebesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. Pisu polita. Eraiki berria. 3

logela. Kanpoaldera. Apartekoa. Inmo

Ebesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Eraiki berria. 3 logelako pisu

ederra. Trasteleku. Garajea. Inmo

Ebesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. 70 m². Egongela, sukaldea, 2

gela eta bainugela. Zaharberritua.

39.000.000 pezeta. Inmo Ebesagasti.

943 69 68 56.

Andoain. Gazteentzako ezinhobea.

Kapriboz zaharberritua. 70 m².

Eguzkitsua. Trasteleku. Inmo

Ebesagasti. 943 69 68 56.

Behar dira. Eskaera handiagatik: landa

lursailak, hirigintzakoak, pisuak, villak,

baserriak... Salgai edo alokairuan.

KIROLA ▶



Datorren igandean Donostiako Ondarreta hondartzan izango da jardunaldia. OLALIA ESKITSABEL

Emaitza onak lortu dituzte eskualdekoek zaldi lasterketan

Garikoitz Lasa bidaniarra seigarren izan zen ligaxkako lehen lasterketan; Eizagirre zizurkildarra, berriz, hirugarren

NOELIA LATABURU

Eguraldia lagun, hasiera ona izan zuten herenegun eguerdian, Getariako Malkorbe hondartzan zaldi lasterketan parte hartu zuten eskualdeko korrikalari batzuk, izan ere, ligaxkako puntuatzen duen lehenengo lasterketa honetan parte hartu zuten zortzi kirolarietatik bik lehengo sei postuetan sar-

tzea lortu zuten, inolako oztoporik gabe.

Horien artean, eta seigarren postua eskuratuz, Garikoitz Lasa bidaniarra izan zen. Xabier Lazkano antolatzaileetarik batek HITZARI azaldu dionaren arabera, «Gipuzkoatik oso ordezkari ona etorri da, hobereen artean gipuzkoarrak baitaude zaldi lasterketan». Hirugarren postua, berriz, Iña-

ki Eizagirre zizurkildararentzat izan zen. Gaiantzeokoei puntuak batzen jarraitu behar dute datozen lasterketan aurrera egingo badute.

Datorren lasterketa, puntuaziorako baliagarria izango dena, igandean izango da, Donostiako Ondarreta hondartzan. Guztira zortzi izango dira, urria bitartean, Deban izango den finalaren aurretik.

JANARI BILKETA ▶

Amaitzear da Sahara laguntzeko janari bilketa

Alegian, Ikaztegieta, Amezketan, Abaltzisketan eta Baliarrainen gauzatu dute

N. LATABURU

Eskualdeko herri ezberdinak ari dira Saharako Karabanen bidaltzeko janari bilketa lanean. Kanpaina Eguberri aurretik hasi zen zenbait herritan; oraindik herritarrek badute aukera, bakoitzak ahal duen neurrian, ekarpenak egiteko.

Alegian, batetik, Aralar Institutuan utz ditzakete elikagaiak bertara hurbiltzen direnek; Ikaztegieta ere bada janaria biltzeko aukera: herri eskolan, udaletxean eta kiroldegian. Bi herri hauetan kanpainaren epea aste honetako ostiralean amaitzen da, hilaren 21ean, hain zuzen ere.

Amezketak, Abaltzisketak eta Baliarrainen ere bat egin dute ekimenarekin, izan ere,

eurek ere eskaintzen dituzte janaria biltzeko guneak. Amezketak eta Abaltzisketak, batetik, herriko eskolak eta udaletxeak jarri dituzte herritarren zerbitzura. Baliarrainen, bestetik, udaletxean egiten ditu bere bilketak. Hiru herri hauetan epea beranduago amaituko da eta hilaren 26a bitarte izango dituzte zabalik bilketa guneak.

Gehien eskatzen dituzten elikagaiak hegaluzea oliotan, konpresak eta azukrea dira. Kanpaina azken txanpan bada ere, udaletxeetako gizarte zerbitzuek dei egiten diete biztanleei beraien laguntza eman dezaten azken egun hauetan eta aurreko urteetako kanpainen emaitzak berdintzea edo hobetzea espero dute.

ALEGIA ▶

Ipuin kontaketa gaur arratsaldean liburutegian

Ipuin kontaketa antolatuta dute gaurko herriko liburutegian, Alegiako kultur ekitaldien barnean. Kontaketa Lamiak taldearen gidaritzapean izango dira, eta ipuinak entzutea gustuko dituzten gazte eta herritar guztiak daude gonbidatuak 18:00-etan hasiko den saiora.

IKAZTEGIETA ▶

Candanchuko bidaiara joateko epea zabalik

Udalak martxoaren 5erako eta 6rako Candanchura eskiatzera joateko bidai antolatuta du herritarrentzat. Bertara joan nahi dutenek izenematea otsailaren 11 baino lehen egin behar dute. Helduentzat 24 euro izango dira eta hamaika urte azpikoentzat, berriz, 21 euro.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47-behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ernio@inmoernio.com
www.inmoernio.com

Alegia. San Juan kalean 161 m2ko azkeneko etxebizitza salgai, bi terraza ederrekin.

Anoeta. 60 m2. Logela, egongela, sukualdea, bainugela. Berokuntzarekin. 192.325 euro.

Anoeta. Iturburu. Hiru logela, egongela, sukualdea, bainugela. Berokuntzarekin.

Asteasu. Eraikuntza berriko etxea salgai. Lau solairurekin, lorategia eta terraza. Oso egoera onean. Aukera paregabea. 340.000 euro.

Berrobi. Bi logelako pisu merkea. Toki lasaia. 141.839 euro.

Berrobi. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisu, trasteleku eta garajearekin.

Ibarra. Eraikuntza berriko bi logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.

Ibarra. Euskal Herria kalearen

hasieran garaje itxia salgai.

Ikaztegieta. Eraikuntza berriko etxe abikia salgai. 270.455 euro.

Ikaztegieta. Sei etxe abikiaren eraikuntza berria. Informazio pertsonala.

Irura. Borda ikusgarria, ikusteko modukoa!!

Legorreta. 70 m2ko etxebizitza, berokuntzarekin. 142.440 euro.

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 142.440 eurotik aurrera.

Tolosa. Amaro azoan oso egoera onean dagoen etxebizitza salgai.

Tolosa. Belate. Hiru logela eta bi bainugelako etxebizitza salgai.

Berritua.

Tolosa. Emeterio Arrese. 110 m2.

Hiru logela, bi bainugela, garajea.

Tolosa. Erdialdean azkeneko pisua

terraza ederrekin. Aukera

paregabea!!!!

Tolosa. Erdialdean. 130 m2ko etxebizitza salgai. Lau logela (bat bulego bezala egokitua).

Estreinatzeko, gututz berritua izan ondoren.

Tolosa. Foruen Etorbidean gututz berritutako etxebizitza salgai.

Ikustekoa!!!

Tolosa. Pablo Gorosabel. Hami urte dituen eraikuntzan, pisu altua, igogailu eta berokuntzarekin, garajea aukeran.

Tolosa. Lurre. Garage itxia salgai.

Tolosa. Lurre inguruan gututz berritutako bi logelako etxebizitza.

Tolosa. Lurre. Hiru logelako pisua, ganbara eta garajea aukeran.

Tolosa. Larramendi azoan etxebizitza salgai. Orain dela gutxi

eraikuntza. Bi logela, sukualdea, egongela eta trasteleku. Berokuntza. Ezin hobeto.

Tolosa. Santa Klara. Lau logela. Berokuntza. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.

Tolosa. Santa Klara. Hiru logelako pisua salgai, sukualde, egongela eta bainugelarekin. Berokuntza.

Tolosa. Trinkete. Hiru logela eta bi bainugela. Egongela ederra. Ezin hobeto!!

Villabona. Etxeondo. Pisu ganbara eta garaje itxiarekin.

Villabona. Kale Nagusian hainbat etxebizitza salgai. 132.223 eurotik aurrera.

Villabona. Larrean eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua.

Villabona. Oriamendi. Hiru logela, egongela, sukualdea. 210.355 euro.

LEITZA ▶ GIZARTEA



Urzainkik, gure herriaren historiaren azterketa egin du arlo guztietatik begiratuta eta Nafarroaren edo Euskal Herriaren estatu izaerari buruzko frogak jaso —eredu batzuk erakutsi zituen hitzaldian zehar— eta *Navarra estado europeo* liburuan bildu, eta argitaratu egin ditu. JAIONE ASTIBIA

Gure herriaren historia azalduz

Agiriak, irudiak, idatziak arakaturaz, nonahi ageri dira Nafarroaren, Euskal Herriaren, herri izaeraren frogak

JAIONE ASTIBIA

Gure herriaren historia. Horixe da Tomas Urzainkik bere *Navarra, estado europeo* lanaren bidez, berri ere frogatu duena. Eta horixe aurkeztera etorri zen lehengo ostiralean Leitzara. Aretoa bete jenderen aurrean, bere azken lanaren nondik norakoak azaltzen zituen bitartean, bertan jaso dituen hainbat frogak erakutsi ere egin zituen, bere azalpenen argigarri gisa.

«Nafar guztiak euskal herri-tarrak gara eta euskal herri-tarrak guztiak nafarrak gara» esaldiarekin Nafarroaz eta Euskal

Herriaz jarduterakoan herri berberaren bi izen baina herri bakarra dela adierazi zuen. Izena baino, izana dela baliozkoa eta hain zuzen ere «gure nazioa ez da herri etniko, kultural eta linguistikoa bakarrik, baita politikoa ere», definitu zuen. Eta baita defendatu ere eta frogatu.

Egindako lan honetan, historian zehar eta arlo guztietan erreparaturaz, Nafarroaren estatu izaera frogatuko zuketuen ezaugarri, agiri, ikur, diru, neurri... aztertu ditu. «Gure herriko errege-erreginek sinatutako agiriak hortxe daude», zioen adibide gisa; edo grabatuetan

Nafarroako kateak agertzea «garaikide ziren gainerako Europako estatuarekin batera, beste maila berean onartua eta kontutan hartua zen seinale da», gaineratu; edo kultura unibertsalean baskoi modura ezagutzen ziren hainbat eta hainbat jakintsu...

Bere ustez lanik garrantzitsuena, «hau guztia ezeztatu eta desagertarazten estatu menperatzaileek egindako lana» azaltzea da: «Historiaren itxuraldatze larri hori gure herriaren askatasuna eta eskubi-deak ukatzeko erabiltzen dute. Hori zuzenduarazi eta jakinaraztea, gure eginbeharra da».

LEITZA ▶ KIROLA

Errotxapeatik garaipen argiarekin itzuli dira

1 eta 6ko emaitza eskuratu du asteburuan Aurrera futbol taldeak Ecuavarrarekin

J. ASTIBIA

1 eta 6ko emaitza zakuan zutela itzuli ziren Aurrerako jokalariek etxera. Ecuavarrak taldeak azken orduan egindako egun aldaketa bitarteko, larunbatean jokatu zuten partidua, Errotxapeko Irati futbol zelaian eta markagailuan alde handia eragin zuten, etxekoak bakararekin gelditu ziren bitartean, Salazarren jokalariek 6 gol egin baitzituzten: Antolin, Arangoa, eta Bengoetxea lehengusuek bana eta Barberriak bi.

Emaitza oso desberdina izanagatik ere, laster asko egin beharra egokitu omen zi-

tzaien leitzarrei, zuzendaritzatik atzo adierazi zuten. Izan ere, bertakoek «oso ukitu ona duten arren jokaldiak hasi egiten dituzte, beraien artean ez dira moldatzen, hizkuntza arazoak ere badituzte...; izan ere, haserretu ere egiten dira, eta ez dute bukatzen asmatzen. Ez dute taldea zuzenduko duen bururik», argitu zuten.

Horrela «guk, antolatutako jokaldiak egiteko aukerak izan genituen eta askotan iritsi aurkariaren ate ingurura eta asmatu ere bai; azken emaitza horren isla», zioten.

Hiru puntu gehiago eta ligaskarako lekua ere ziurrago.

LEITZA ▶ IHOTEAK

Ihoteak ate joka helduki, prestaketak ere hortxe

Otorduetarako txartelak salgai daude eta epeak kontutan hartzea komeni da

J. ASTIBIA

Hurrengo igandean hasiko dira ihoteak eta otorduak ere badira antolatuko.

Igandean bertan, bazkaria izanen da Erleta eskolako jantokian, Aurrera elkarteak antolatuta. Aurten menu berria izanen dela iragarri dute: urdaiazpikoa, arrain-zopa, axuri erreka eta tarta izozkiarekin, noski, hau guztia bustitzeko ardoa eta xanpaina izanen omen da eta bukaerako kafea eta gainerako osagarriak ere ez omen dira faltako. Txartelak

Txoko edo Gaztañaga tabernetan hartu behar dira, asteazkena baino lehen.

Eta asteartean, berri, txotx egiteko aukera izanen da Torrea, *Tolare sagardotegian*, Zabala sagardoa, kupeletik dastaturaz, bakailo tortila eta puskak, parrilan erretako txuleta eta gazta, intxaur eta irasagar gozokia jateko izanik. Kafea eta kopa ere bai. Txartelak han bertan daude saltzeko, azken eguna ilbeltzaren 24, bezpera, izanez.

Epeak kontutan hartzea komeni dela adierazi dute.

hitza **txokoa** ^{lagunen}

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZARI 42 euroko diru laguntza ematen dioten harpidedunek HITZA egunero jasotzeaz gain **ABANTAILA EZBERDINAK** izango dituzte; harpidedunen txartela izango dute eta, besteak beste, HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera izango dute.

▶ HITZAren laguntzaile izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Ipuin kontaketa, 18:00etan Liburutegian Lamiak taldearen eskutik.
Ibarra. Garagardo festa antolatuko bilera, 19:00etan Kultur Etxean. Herriko talde eta elkarten parte-hartzea eskatzen da.
Tolosa. Santa Maria parrokiako katekesiak Indian hainbat proiektu bideratzeko pezeta zaharren bilketa egingo du 18:00etatik aurrera parroki etxean. Euroak ere jasoko dituzte.
Tolosa. Ero-Etxe elkarteak antolatutako krosa izango da igandean, 1991 eta 1996 artean jaiotako neska-mutilentzat. Izen-ematea ikastetxeetan eta irteera puntuan egin daiteke.
Tolosa. 1956ko kintoak hilaren 30ean elkartuko dira Urnietan. Izen-ematea Tolosako Irrintzi eta Basarri tabernetan.
Tolosa. Udaltzaingoa trafikolaguntzaileak hartu behar ditu Udalak Inauterietarako. 18 urte, graduatu eskolarra, gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez izatea eta euskara jakitea eskatzen dute. Izen-ematea udaletxean.
Tolosa. Martxoaren 5 eta 6rako Candanchura eskiatzera joateko irteera antolatu du Udalak. Helduek 24 euro eta 11 urte artekoek 21 euro. Udaletxean eman daiteke izena, otsailaren 11 baino lehen.

HITZALDIAK

Tolosa. *Nola landu autoestima seme-alabengan?* hitzaldia izango da Orix Institutuan, 19:00etan, Babxiler 1. eta 2. eta DBH 4. mailako ikasleen gurasoei zuzenduta.
Tolosa. Langile etorkinen erregulazio berezia dela eta, *Nekazaritzan lan egin paper eta eskubide guztiekin* izenburupean, hitzaldia antolatu du Gipuzkoako EHNEK. 15:30ean, egoitzan bertan (Nafarroa etorbidea 6, 2. zenbakia).

ZINEMA

Tolosa. *Diarios de motocicleta.* 19:30ean eta 22:30ean, Leidor zineman. Ikuslearen Eguna.

Usadioekin jarraituz

BERASTEGI ▶ Urtero legez, San Anton egunean animaliak eraman dituzte San Anton ermitara hauek bedeinkatu eta urte oparoa izan dezaten



Hamarretako mezaren ondoren, animaliei bedeinkapena egin ostean, hamaiketako egin ohi da ermitako arkupeetan. IÑIGO TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

San Anton eguna ospatu zuten atzo eta aspaldiko ohiturak oraindik ere mantentzen direla argi geratu da. Izan ere, Berastegiko San Anton basilizan animalia ugari bildu ziren egun honetan ohikoa den bezala bedeinkapena egin ziezaieten.

Goizeko hamarretako elizkizunean Berastegiko herritar ugari hurbildu zen basilizan, ia beterik geratu baitzen ermi-

ta. Meza amaitu bezain pronto bedeinkapenekin hasteko unea iritsi zen, kasu honetan Berastegiko apaizaren ordezkoren partetik.

Era guztietako animaliak ikusi ahal izan ziren basilizaren kanpoaldean: pottokak, txakurrak edo oiloak; guztiak ere bedeinkapena noiz egingo.

Hauen jabeak dira ohiturari jarraipena eman nahi izaten diotenak; behin apaizak animalia bedeinkatuta, honek urte ona izango duela espero

izaten baitute, usadioak horrela esaten duenez.

Baina ez dira animaliak soilik bedeinkapena jasotzen dutenak San Anton egunean. Hauxez gain, pertsonak ere bedeinka baitaitezke hala eskatzen badute. Hauentzat basilizaren barrualdean egiten da; animalientzat kanpoaldean egiten den bitartean.

Urtarrilaren 17a festa polita izan ohi da, beraz, berastegiarrentzat. Meza eta bedeinkapenak lehendabizi, eta ondoren,

San Anton basilizara hurbiltzen direnak ermitaren arkupean biltzen dira hamaiketako oparoa egiteko.

Ermita honetatik oso gertu dagoen San Sebastian izena daraman ermitan datorren ostegunean, hilaren 20an, ospatuko dute meza 10:00etan eta ondoren mokadutxo bat egiteko aukera ere izango dute herritarrek. Urtean behin izaten da elizkizuna hemen, izena ematen dion santuaren egunean, hain zuzen ere.

ZORION AGURRAK ▶



ZORIONAK
Unax Lizarraga Calvo
(Zizurkil). Gaur urtebete.
Muxu handi bat denon partetik.



URTE ASKOAN
Lara Regillaga Olan
(Ibarra). Gaur 3 urte.
Gurasoen partetik.



URTE ASKOAN
Garazi.
Gaur urtebete.
Zorionak Aixaren partetik.

HITZA, zorion agurren

Urtebetezuek, urrezko ezteiak, tartea
ezkontzak, jaioberiak...

zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!